

Zura eta sutautsa

Amaitu berri den Tarregako Ferian antzezlanen oparotasuna nabarmen geratu da

Tarregan urratu ditugu zapatak. Kanean gora antzerkia. Kanean behera antzerkia. Ikuskariak non-nahi. Hamaseigarren edizio hau aurreko bidetik abiatu da zuzendaritzan aldaketak izan arren. Antzezlanen ugaritasuna nabaria da, kalitatea sarritan alde batera utzita. Erakusleho erraldoi bat izan nahi du eta zalantzarik Espainiako Estatuko handiena da. Hiru egunetan ehundaka emanaldi plazaratzen dira, hamaika kale eta eszenatokitan.

Berriemaile berezia

Imanol Agirre / Tarrega

AHO bete hortz utzi gaitu Togotik etorritako Amlima taldeak. Bost metroko hankapaloen gainean afrikako kultur indarra erakutsi du. Talde honek harreman franko gauzatu du azokan zehar eta datorren udan Ingalaterran, Frantzia eta Andaluzian izango bide da. Honez gain hurrengo Lekeitioko kale antzerki jaialdian parte har dezake hasitako gestioek emaitza ona emanez gero. Togoko antzezle hauen gorputzen mogimendu malguak eta danborren hots exotikoak izan dira aurtengo oroimenik ederrenetakoak.

Kale erritoaren bidetik Kolonbiako Pa lo Q'sea taldearen kalejira ere oso ikusgarria izan da. Talde hau nahiko ezaguna da gurean, aurreko ikuskariaren emanaldi ugari plazaratu baititu Euskal Herrian. Heriotza gaituz harturik Hego Amerikako aratuste giroan murgildu da. Sutautsaren usaina dariorio kalez kaleko bidaiari honi. Piroteknia baita ikuskariari argiztapen zurbila ematen diona.



Trapu Zaharra, Hika, Sobradun eta Legaleon euskal taldeak Tarregan izan dira.

IMANOL AGIRRE

Eta piroteknia izan dugu gauero protagonista. Katalunian geunden eta azoka honek Kataluniako antzerkia erakusten du batik bat. Xarxa talde valentziarrak zabaldu du egitarau ofiziala. *Veles e vents* suzko ikuskari bat da. Antzerki teknika oso gutxi, baina zarata eta joko pirotekniko harrigarriak. Formatu handiko kale emanaldi hauek abagune arriskugarri batean kokatu direla uste dut: ideiak behin eta berriro errepikatzea. Visitants taldeak ere suzko lan berria plazaratu du mairu eta kristauen arteko gatazka sonatuak oinarri hartuta. Hankapaloak zainduak izanagatik istorioa arina da. Bakearen aldeko mezua inozoarekin hankapaloek *bakalao* musika dantzatzen dute. Hori dela eta bolboraren

usaina baino ez da gelditu.

Antzerkiaren beste aldean, aurtengo azoka aktore bakarreko ikuskarien bilkura izan da. Clown, fools (zoroak), mimo, showman... fauna oparo eta anitza topatu dugu plaza eta kantoietan. Denetarik zegoen baina bateren bat nabarmendu beharrian Loco Brusca clown argentinarra aipatuko genuke. Ikaragarria deritzogu mila lagun inguru aktore bakar batekin hain gozoki ulertzea: Mikrofonorik gabe eta plaza baten erdian eskarmentu handiko clown honek freskotetasuna ez duela galdu adierazi du. Magia, egoera bakoitzari zue duen irteera xelebrea bat-batean asmatzean datza. *Sperman* pertsonaia gorpuztuz barre algara ederrak piztu ditu Tarregako ikusleengan.

Tarrega ez da soilik kalea. Zurezko eszenatokietan beste-lako antzerkia dago, usadiozko antzerkia alegia. Dramak eta komediak elkarri mokoka edozein espaziotan. Tarregan antzoki bakarra dago eta jaialdi honetan museoak, kiroldegia, ikastetxeak, elizak... antzezleku bilakatzen dira.

Aurten, aurreko urteetan bezalaxe, umorea nagusitu da. Komedia erraza nabarmendu arren, zenbait drama eta umore emanaldik kalitatea ekarri dute. Parisko BZ Zoom taldeak clown garaikidearen ñabardurarik bikainen eraman ditu taulara. Bikote umoretsu honen ez du hitzik behar eta horregatik groteskoa eta poetikoa den ikuskari honek emanaldi bat baino gehiago izango du penintsulan.

Euskal guneak aurreneko urratsa eman du

ONDO ederto iragarrita zegoen Euskal Antzerkiaren Gunea Tarregan zehar. Lau taldeak, Trapu Zaharra, Hika Sobradun eta Legaleon, baina ofizialarekin heldu ziren eta bertan Amaia Rodriguez Euskal Jaurlaritzako Kultura Sektoreko Zuzendariaren laguntza jaso zuten. Xedea bete denentz jakiteko goizegi da, baina badira hainbat datu kontuan hartzekoak. Hasteko euskal antzerkiak oihartzun aipagarria eskuratu du eta honez gain talde guztiak erabat pozik azaldu dira emanaldien emaitza aztertzeke unean. Programatzaileen gonbidapenak berehala agortu ziren eta nahiz eta lekua nahiko hotza izan (egokitutako kiroldegibat), harremanak gauzatu egin dira Espainiako Estatuan antzezteko. Euskal Herriko antzerki tekniko batzuek ere ez zuten aukera galdu eta euskal antzerkia Katalunian ikusi behar izan dute, euskal antzerkiaren barne banaketa ahula agerian utziz. Estreinako urratsa eman da. Kale antzerkia izan da aurtengo hutsunetako bat. Dena den geroari begira batkor jar gaitzke.

Espazio honetatik at bi ikuskari euskaldunekin egin dugu topo. Txo Titeres izeneko taldeak Bergararik alden du zen txotxongilo egile baten istorioa dalañaki Azkargorta Bartzelonara joan da bizitzera zorte hobearren bila eta bere emaitza bikaina da. *Re9n* izen koropilatu honek ikuskari samur eta harrigarria eskutatzen du. Hiru eszenatoki niniñotan partinak teklen bitartez mugitzen dira. Orain arte txotxongilogintzan inoiz ikusi dudana efektirik ederrenetako bat.

Eta amaitzeko da deituriko nafarra aipatzea baino ez zaigula falta. Zoro baten jokoan sariturik aktore clown honek berdaki zer den ikusleekin harremanetan aritzea. Iris jite bereziko antzezlea da. X

'Michael Collins' lana irabazle izan da Veneziako zinemaldian

Liam Leeson eta lau urteko neskatu bat aktore onenak

Erredakzioa / Donostia

VENEZIAKO zinemaldiak guztira ehun filme pantailaratu ditu, eta horietatik hamazazpi parte hartu dute lehiaketan. Sari banaketa larunbat gauetan burutu zen, eta filme onena saritzen duen Urrezko Lehoia *Michael Collins* filmearentzat izan zen. Neil Jordan zinemagile irlandarraren filme honetan parte hartzen duen Liam Neeson eta *Ponette* luze-metraiaren aritzen duen Victoire Thivisol eman dizkiote aktore onenaren sariak. Thivisol haurrak lau urte besterik ez ditu, eta epaimahaiaren erabakiak harri-dura sortu du kritikarien eta ikusleen artean.

Michael Collins-ekin batera,

Arturo Ripsteinek zuzenduriko *Profundo carmesi* da aurtengo Mostran oihartzun handiena izan duen filmea; izan ere, filme honetako gidoia, musika eta eszenografia sarituak izan baitira. Epaimahaiaren sari berezia Georgiako Otar Iosellianiren *Brigands* filmeari eman diote, Senatuen Urrezko Domina *Carla's Song* Ken Loachen lan berriari, eta protagonista ez den aktore nagusiaren saria berriz, *The Funeral* filmaren diharduen Chris Penn-i. Sari hauez gain ibilbide osoa kontuan izaten dituzten lau Urrezko Lehoi banatu ziren. Dustin Hoffman, Michele Morgan, Vittorio Gassman eta Robert Altmani eman zizkioten ohorezko Urrezko Lehoiak. Irlandako as-



Neil Jordanen azken lanak jaso du sari nagusia.

CLAUDIO ORONATIO

katasuna eta independentziaren aldeko borroka agertzen dira Neil Jordan irlandarraren *Michael Collins* filmean. Neil Jordan pozik dago, izan ere filme onenaren saria jasotzeaz gain filme honetan bertan parte hartu duen Liam Neeson aktorea saritua izan bai-

ta. Roman Polanski buru zuen eta Angelica Huston, Paul Auster eta Antonio Skarmeta besteak beste kide zituen epaimahaiaren iritzi, bera izan da gizonetako aktore onena, eta lau urte besterik ez dituen Victoire Thivisol emakumezko aktore onena. X



Zumarrago Udala

EDIKTUA

Zumarrago Arau Subsidiarioetako 2. Sektoreko Barne aldaketaren aurrepena (Beloki Hiribidea) izeneko proiektua idazteko lanak aurreratu samartuak daudenez, eta Hirigintzaren Antolamenduko Erregelamenduko 125. artikuluko agintzen duena betetze aldera, ediktu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta 30 eguneko epean herritarrei aztergai eskainiko zaizue erpedienteak, hartara, interesik duenik bada, egoki irizitako oharrak egin ditzan, edota beste irribideren bat azaldu nahi izanez gero azaldu dezan.

Zumarraga, 1996ko irailak 5. ALKATEA